



OTEUS

OBSERVATORIO DEL TRANSPORTE  
DE EUSKADI

EUSKADIKO GARRAIOAREN  
BEHATOKIA



*Panorámica del Transporte en Euskadi*

*Euskadiko Garraioaren Panoramika*

2006



## AURKEZPENA



EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

GARRAIO ETA  
HERRI LAN SAILADEPARTAMENTO DE  
TRANSPORTES Y OBRAS PÚBLICAS

"Ekonomia modernoek ezin dute aberastasunik sortu garraio-sare eraginkorrik gabe"; Jacques Barrot Europako Batasuneko gobernuko presidenteorde eta Garraioaren Arduradunaren hitzak dira horiek. Adierazpen horrek Europako Batasunaren asmo handiko proiektuarekin du zerikusia. Izan ere, 2020. urterako, sare kapilar handi bat eduki nahi da, Europa hogeita hamar jarduera-ardatzen bidez lotzeko: lehorreko eta itsasoko garraio-sare handiak, 89.500 kilometro errepide eta autopista, 94.000 kilometro trenbide-linea (horietatik 20.000 abiadura handikoak) eta 11.250 ibai-linea, 210 barne-porturekin. Hogeita hamar proiektu handi horiek ez dira Europako kontinentean bakarrik egingo, itsasoa ere sare horien barnean baitago, eta itsasoko autopista izeneko garraio-ibilbideak lehorreko garraio-ibilbideekin batera sortuko dira.

Eusko Jaurlaritzako Garraio eta Herri Lan Sailburu naizenez, adierazi nahi dut Europan garraio-modu eraginkorrago eta iraunkorragoen premiari buruz dituzten kezka guk ere baditugula. Erronka horretan parte hartu nahi dugu, "lehen lerroan" egon nahi dugu, eta ahal dugun heinean ekarpenak egin. Egia esan, dagoeneko, ekarpenak egiten ari gara: Euskal Trenbide Sare Berria, "Euskal Y" izenekoa, funtsezko elementua da Europako hego-mendebaldeko abiadura handiko trenaren sare mistoan. Trenbide-sare hori 3. lehentasun-proiektu gisa sailkatu da. Hain zuzen ere, proiektu hori hainbat administrazioen artean egiten ari da, eta, amaituta dagoenean, Madril eta Lisboa trenbide bidez lotuko ditu, eta bi hiri horiek Gasteizekin; jarraian, Bidasoa zeharkatu, eta Europa kontinentalean barneratuko dira.

Europako Batzordearen Garraioari buruzko Liburu Zuria funtsezko gida da EBko garraio-politikan. Gida hori "Euskadiko Garraioen Politika Komuna 2002-2012" proiektuaren oinarria da, eta Eusko Jaurlaritzaren "Garraio Iraunkorraren Gidaplanean" islatzen da. Dokumentu hau, EUSKADIKO GARRAIOAREN PANORAMIKA, "Garraio Iraunkorraren Gidaplanaren" ondorioz bete beharreko lanetako baten emaitza da. Gure ustez, interesgarria da garraio-administrazioen, sektoreko enpresen eta herritarren esku jartzea txostenak aztertutako urtean zehar garraio-sisteman eta garraio-azpiegiturretan gertatutako guztiari buruzko informazioa nahiz datuak.

Dokumentu honetan, 2006. urtea aztertzen da. Euskadiko Garraioaren Behatokiak (OTEUS) egin duen laugarren GARRAIOAREN PANORAMIKA da, eta, gure ustez, garraio-sistemaren iraunkortasuna aztertzean, xehetasun handiz erakusten du adierazleen eta aldagarrien bilakaera. Horrez gain, azpimarratu nahi dut GIS- Garraio Informazio Sistema dela Garraioaren Panoramikaren urteko txostenaren oinarria, garraioari eta haren adierazleei buruzko informazio erabat eguneratuta ematen baitu.

Zinez espero dut, datozen urteetan, txosten hau garraioari buruzko oinarri garrantzitsu bihurtzea eta tresna erabilgarri nahiz atsegina izatea. Garraio Zuzendaritzari eta hango lantaldeari adorea eman nahi diet, dokumentu hau hobetzen jarrai dezaten, etorkizunean garraioari buruzko ezagutza hobetzen lagunduko duela argi baitaukat.

Nuria Lopez de Gereñu Ansola  
Garraio eta Herri Lan Sailburua